

## GUK Alkatearekin elkarlanean



Urtarrilaren 28an aurkezpena egin eta hurrengo goizean ospatu du Gordexolako Umeen Kontseiluak bere aurtengo lehen bilera. Lantalde berri hau osatzeko, iazko taldearen erdiak jarraitu egiten du eta beste erdia aukeratzeko zozketa berriak egin ditugu 4. mailako gelan. Aitor, Mikel, Ane, Miriam, Oihan, Unax, Amaia, Ninbe, Aitor, Oier, Mainer eta Henarrek osatzen dute umeen partaidetza politikorako aurtengo lantaldea. Ekainera bitartean hilean behin bilduko da Gordexolako Alkateari herrigintzan aholku ematen dion lantalde hau.

Lehen bilera izanik, liburutegiko gure egoitzara igo eta zirkuluan jarrita GUKen Jokoa arauak zeintzuk diren eta nola lan egingo dugun azaldu ditugu. Ondoren, elkar ezagutzeko eta taldea osatzeko zenbait jarduera burutuz batera, jakin ahal izan dugu askorentzako herriko leku faboritoa plaza dela (eta beste batzuren haien etxea), herrian parkour egiteko lekurik ez dagoela edo zein abesti eta filme dituzte gustokoen...

Udaletxera joan gara gero, hitzordua baikenuen bertan Gordexolako Alkate Angela Eguiarekin. Bere eskutik Udaletxea eta bertako langileak ezagutu ditugu: bere bulegoa, idazkaritza, harrera, teknikariak... Bigarren solairuan arkitekta ikusi dugu, baita Elikagaien Bankurako dauden elikagaiak ere, eta Angelak Banku honek nola funtzionatzen duen azaldu digu. Gero Udaletxeko sukaldea ikustearekin batera, lehen Udaletxeko idazkaria bertan bizi zela azaldu digu Alkateak, eta hau bere sukaldea zela. Bilkura aretoan amaitzen dugu bisitaldia. Bertan Alkatearekin berba egiten aritu gara.

Umeen Kontseiluan bi eratara egin daiteke lana: Alkatearen mandatuz ala umeen guratatik abiatuta. Iaz bere kabuz lan oparoa egin zuen GUKek: batetik GordeJoko ekoiztu zuen (liburutegian eskuragarri dagoen gure herriari buruzko mahai-jokoa) eta bestetik herriko jaietarako Gyn-kana jarduera bat antolatu zuen (bide batez plaza inguruetakoa *jolasgarritasuna* aztertuz). Aipatu behar da, azken gai honi dagokionez, San Kosmeko errepidearen arriskuak behatuta, GUKetik jasotako proposamena aintzat hartu eta interbentzioren bat egingo duela Udalak kotxeak mantsoago igaro daitezen plaza inguru horretan.

Aurtengo, berriz, badauka Angela Eguia alkateak Umeen Kontseiluari eskatzeko lan edo aholku eskari bat: herriko plazan datozen urteetan egin nahi diren eraldaketa obrei buruzko euren ekarpena jaso nahi du: segurtasuna, kultur-etxearekiko lotura, hesia, zoruaren ordezkatzeta, harrizko bankuekin zer egin...

Hurrengo GUK bilera otsailaren 21ean ospatuko dugu.

Hemen ikus ditzakezue bilera honetako argazkiak: <https://flic.kr/s/aHsm9eEPHk>

## GUK trabajando con la alcaldesa



El GUK -Consejo de la Infancia de Gordexola celebró su primera reunión la mañana del 29 de enero. Para formar el grupo de este año sigue la mitad el grupo del año pasado y hemos sorteado la otra mitad entre las niñas y niños de 4º curso de la escuela. Aitor, Mikel, Ane, Miriam, Oihan, Unax, Amaia, Ninbe, Aitor, Oier, Maider y Henar son ahora los participantes en este equipo de trabajo de participación política de la infancia. Se reunirán una vez al mes hasta junio para aconsejar a la alcaldesa de Gordexola en torno a asuntos del pueblo.

Comenzamos esta primera reunión subiendo a nuestra sede del segundo piso de la biblioteca, donde teníamos preparado un círculo de sillas. Explicamos las reglas de juego del GUK y cómo vamos a trabajar. A continuación realizamos algunas actividades para conocernos mejor y reconocernos como grupo, en el transcurso de las cuales pudimos saber que el lugar preferido de muchos en Gordexola es la plaza (y el de otros su casa), que no hay lugar en el pueblo para poder hacer parkour, o qué canciones y películas son sus preferidas...

Luego hemos ido al ayuntamiento, ya que habíamos quedado allí con la alcaldesa Ángela Eguía. Hemos conocido de su mano el propio ayuntamiento y a sus trabajadores: su despacho, secretaría, recepción, los técnicos... En el segundo piso hemos visto las cajas del Banco de Alimentos, cuyo funcionamiento nos ha explicado someramente la alcaldesa. Mientras veíamos la cocina del Ayuntamiento, Ángela nos ha contado que antiguamente el secretario vivía allí, en el segundo piso, y que esa era su cocina. Hemos terminado la visita en el Salón de Plenos, donde nos hemos sentado a charlar.

En un Consejo de la Infancia se puede trabajar de dos maneras diferentes: por petición de alcaldía o bien partiendo de los deseos de los propios niños y niñas. El año pasado trabajamos desde ahí y los resultados fueron espectaculares: por una parte crearon y realizaron el Gordejoko (un juego de mesa sobre nuestro pueblo que está a disposición de quien quiera en la biblioteca municipal), y por otro lado organizaron una actividad de gynnkana para las fiestas patronales (analizando de paso la *jugabilidad* del entorno de la plaza). Señalar a este respecto que, observado el peligro que conlleva la carretera que viene (o va) de San Cosme, el ayuntamiento tomará en cuenta la propuesta del GUK y realizará algún tipo de intervención encaminada a que los coches aminoren su velocidad en este tramo.

Este año, sin embargo, la alcaldesa Ángela Eguía sí que tiene una petición que hacer al GUK: quiere recibir su punto de vista en torno a las obras de remodelación de la plaza de Gordexola, que se tiene previsto realizar en los próximos años: seguridad, vinculación a la casa de cultura, valla, sustitución del pavimento, qué hacer con los bancos de piedra...

La próxima reunión del GUK se celebrará el 21 de febrero.

Aquí podéis ver las fotos de esta reunión: <https://flic.kr/s/aHsm9eEPHk>